

Haur guztien antzera,
zuk ere gorputz bat duzu.
Zure gorputza zurea da, eta ez du inork
ukitu behar zuk nahi ezean.



© testuarena eta irudiena: Lucía Serrano, 2021
© argitalpenarena: NubeOcho, 2026
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2022
www.nubeocho.com • info@nubeocho.com
Jatorrizko izenburua: *Tu cuerpo es tuyo*
Lehen argitalpena: Apirila, 2026
ISBN: 979-13-88132-22-3
Gordailu Legala: M-461-2026
PrintCenterren, Turkian, inprimatua.
Eskubide guztiak erreserbatuta.
Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

ISBN: 979-13-88132-22-3 www.nubeocho.com



9 791388 132223

Zure gorputza zurea da

Lucía Serrano



Zure gorputza zurea da

Lucía Serrano





Zure gorputza zurea da.





Pertsona bakoitzak
gorputz bat du. Bakarra.
Eta honekin gauza pila egin
ditzake.



Ez beste inorena.



Gorputzak atal ezberdinak ditu:



Atal bakoitzak bere eginkizuna du.

Eta denek batera makina zoragarri bat osatzen dute: zu zeu.



Zure gorputza zurea da,
zuk duzu erabakia.

Zuk erabakitzen duzu
besarkada bat nahi
duzun ala ez.



Zuk erabakitzen duzu
musu bat nahi duzun
ala ez.



EZ hitza oso garrantzitsua da. Nahi duzunean esan dezakezu.
Esaten saiatu nahi? Sentitu nahi bere indarra?
Norbaitek zerbait ez egiteko esaten dizunean, kasu egin behar diozu.
Zuk esaten duzunean kasu egin behar dizuten bezala.



Zuk nahi ez baduzu, inork, ez heldu
ez haur, ezin zaitu besarkatu ez eta
musurik eman ere.



Ez duzula nahi esaten badiezu, kasu
egin behar dizute.



Batzuetan maite dugu besoetan
eraman gaitzaten, beste
batzuetan, aldiz, ez.

Ez da ezer gertatzen!



Arrisku baten aurrean, ordea,
lehenago galdetu gabe hel zaitzakete.

Esaterako: kalea gurutzatzera
bazoaz, eta auto bat badator,
aurrez baimena eskatu gabe
geldiaraziko zaituzte.

Eta hori ondo dago, zu babesten
ari dira eta!